



HAURRESKOLAK

zurekin

Egiteko beste modu bat



ILAB

Araba eta Bizkaia (2016) eta Gipuzkoako (2019) azken hauteskundeetatik hona gertakari asko bizi izan ditugu Haurreskolak Partzuergoan.

Urte hauetan, hainbat mobilizazio-dinamika jarri ditugu martxan. Grebak, eskualdetako mobilizazioak, udal eta familiekin elkarlana, tokian tokiko komunikabideetan presentzia..., 0-3aren borroka gizarteratzea lortu dugu, eta gure eskaera historikoak lau haizetara zabaltu ditugu.

Lehenengo hauteskundeetatik, zuen botoek emandako gehiengo sindikalaria eta langileen mobilizazioei esker lan baldintzak hobetu ditugu urtez urte. Nabarmenezkoa, 2018ko akordioa. LABek alde bakarrez sinatutako akordioak eta horren garapenaren negoziazioak markatu dituzte hurrengo ikasturteak, batez ere, kudeaketa arloan. Gerora, Eusko Jaurlaritzak izendatutako gerentearen fasea etorri zen; horren **aldebakarkeriak**, negoziatzaileak presatzen faltak eta hezkuntzaren **ezagutza ezak** markatu zutena.

Covid-19aren pandemiak haurreskolak zuzen jo zituen, matrikulazioaren jaitziera eta langileen baldintzen okertzea ekarri. Izan ginen eskolara itzuli ginen lehenengoak, eta arlo pedagogikoa eta prebentzioa batu zituen kontingentzia-plana aurrera atera behar izan genuen. LABek ekarpenak eta eskaerak egin zituen, eta, besteen artean, **Covid errefortzu kontratuak egitea lortu genuen** enpresaren hasierako asmoen kontra.

2021-2022 ikasturtean, gerente berria izendatu zen. Lan-hitzarmen berriaren negoziatzailea eten zuten enpleguaren behin-behinekotasuna jaisteko espainiar Estatutik etorri zen legea aitzaki, eta horrekin lanpostuen kontsolidazioen prozesuek gidatu dituzte negoziazioak.

Balorazioa

NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAN

> 2018ko akordioa sinatuta, aspaldiko aldarrikapena gauzatzea lortu genuen: **Haurreskolak Partzuergoan egindako lana Hezkuntza Publikoko HHko 2. zikloan ordezkapenak egiteko zerrendetan barematzea.**

> 2018ko akordioarekin batera Haurreskolak Partzuergoan negoziatutako **lehenengo ordezkoren araudia sinatu genuen**, aurrekoa dekretuz ezarri baitzuten. **2019an hobekuntzak** lortu eta sinatu genituen aldebakarez.

> 2020/2021ean LABek bultzatutako langileen **mobilizazioetan erakutsitako indarrari esker**, Hezkuntza Sailak bere gain hartu zuen eskatu genion ardura. Eta **geroztik, Hezkuntza Saileko arduradunek** (Zuzendaritza Bartzordeko kideak diren heinean) **mahai negoziatzaileetan** era aktiboan parte hartzen dute. Horrek mahaiei zilegitasun handiagoa ematen die.

> **2016 eta 2018ko** hezitzaile finkoen leku-aldatzeak egin baino arinago **LABek aldebakarez sinatu genuen lanpostuen defentsarako akordioa**: matrikulazioaren gorabeherak izanik, lanpostu kopuru osoa mantenduko zenaren bermea lortu genuen. Covid pandemiak bertan behera utzi zuen gauzatu behar zen hezitzaile **finkoen leku-aldatzea**. Kontsolidazio prozesurako egindako negoziatioetan, **LABek egindako proposamenari esker, leku-aldatzea ikasturte honetan** egingo da, eta lehia-keta publikora aterako diren lanpostu guztien artean aukeratu ahal izango dute, lehenengo aldiz.



> **Haurreskola Txikiei dagokienez**, LABek beti esan dugu landa-eremua bizirik irauteko administrazioak beharrezkoak diren zerbitzu publikoak, haurreskolak barne, indartu eta inbertsioa handitu behar dituela. Azken urteetan, aldiz, Partzuergoak kontrako norabidea hartu zuen, eta uztailerako matrikulazio jaitsiera zela eta, hainbat haurreskola txiki itxiko zituela iragarri zuen aurreko ikasturtean. **LABek Hezkuntza Saila salatu, eta egindako ekintza sindikalari esker**, haurreskola horiek **zabalik mantendu ziren**, nahiz eta haur gutxi matrikulatuta egon.

> **Kontsolidazio prozesuak**: 2021. urte bukaeran espainiar Estatutik etorri zen enpleguaren egonkortze legea. Gure buruari jarritako helburu orokorrak eta deialdietan lortutakoa kontuan harturik, **LABek Haurreskolak Partzuergoan duen gehiengo sindikalari esker**, LABek haur-hezitzaile eta kudeaketako langileen kontsolidazio prozesuaren **negoziazioan egindako lanak fruituak eman ditu**: lan esperientzia, eta bereziki Partzuergoan egindako lana, erabakiorrak izango dira.

Irakaskuntzako gainontzeko azpisektore guztietan ez bezala (%60 zenbatuko du), lan esperientziaren balioa handitu eta %75an kokatzea lortu dugu. Gure ustez bertako langileak egonkortzea bermatuko du horrek.

> Mahai parekidean, urtebete baino gehiagoz **baian** daudenei **%100eko osagarria ordaintzea lortu dugu**.

> Ikasturte hasieratik haurreskoletan dauden pertsonal beharrak asetzeko, urtarrila arte **kontratazio berria LEPartekoen bidez** egitea, bultzatu dugu noiz eta zerrendan bete gabeko lanpostuak daudenean. Lan erreformak ezarritako muga ondorioz lan-metaketa kontratuak gehienez sei hilabetez luzatzeko aukera aukera dagoenean.

BIDE JUDIZIALETIK

> **Europako sententzia** bat aplikatuz, kontratua amaitzean **kalte-ordainak jasotzea** lortu genuen: leku-aldatzeetan bukatutako LEPartekoak epaiketa bidez, eta lan-metaketak ofizioz.

> **LEPartekoek borondatezko eszedentziak** eskatzeko eskubidea lortu genuen: LABek epaitegitara jo zuen eta Partzuergoak soilik finkoei onartzen zien

borondatezko eszedentzia eskatzeko eskubidea finke ez diren langileei ere aitortzea lortu genuen.

> **Finkotasunaren demandak bidean ditugu**. 2021ko abenduan, ebazpen judizial batek atea ireki zuen LEParteko kontratuarekin hiru urte baino gehiagoz zeuden langileak, LEP prozesu bat gaindituta izanez gero, finkotasuna erreklamatzeko. LABek 99 demanda sartu ditu Partzuergoko behin behinekotasun tasaren abusua salatuz. Sententzia irmoak jaso ditugu enpresak ez baitu garaiz errekurtsioa jarri eta gainontzeko ebazpen irmoen zain jarraitzen dugu.

KUDEAKETA ARLOA

> 2019an, kudeaketa alorreko langileek bizi zuten premiazko egoerari aurre egiteko eta ordezkoren zerrenda propioa eratzeko beharra ikusita, **zerrendak zabaltzeko akordioa sinatu zuen LABek aldebakarrez**.

> **2020ko urtarrilean**, 2018ko akordioa garatu ezinik, langileen mobilizazioetan erakutsitako indarrari esker, aurre-akordioa sinatu zuen LABek, lanpostuen zerrenda eratu, lanpostuak gehitu, administrazioaren soldatekin parekatu eta lanpostuen egonkortzea jasoz.

> Partzuergoak aurre-akordioa bete ez zuenez, **LABek salatu zuen**, eta epaitegiko ebazpenari esker, 26 lanpostu jasotzen zituen kudeaketako Lanpostuen Zerrenda sortu zen; gerora, zuzendari pedagogikoaren lanpostuak zerrenda 27ra handitu zuelarik. Orain, 26 lanposturen eskaintza publikoa egin da.

Haurreskolak Partzuergoaren DOAKOTASUNA

LABen aldarrikapen historiko hau datorren ikasturtean gauzatuko da langileek, familia eta eragile desberdinekin batera, bultzatutako mobilizazio eta grebei esker. Horrez gain, 2019an, LABek talde parlamentarioekin egindako bilera-txandan, zerbitzuaren unibertsaltasuna bermatzeko eta doakotasuna bultzatzeko momentua zela adierazi zien, LABek egindako lan horrek ekarri du Haurreskolak Partzuergoaren doakotasuna jasotzen duen Legebiltzarreko akordioa.

Hurrengo erronkak



Harro gaude azken urteetan LABek lortu eta sinatutako akordioekin. Hala eta guztiz ere, bada garaia lan-hitzarmen berria negoziatzeko. Hauek izango dira gure hurrengo erronkak:

Gazteberritze plana:

Haurreskolak Partzuergoko hezitzaileen gazteberritze plana negoziatu nahi dugu. Erretirotik gertu dauden langileen **lan-zama arindu eta belaunaldi berriei lan aukerak** handitu asmoz. Arreta zuzenaren jardunaren hereneko murrizketa 58 urterekin hartzeko proposamena egingo dugu, eta erretiro partziala (txanda-kontratua) hartu ezin duten hezitzaileentzako jardun erdiko murrizketa, 62 urtetik aurrera. Adinagatiko murrizketa ordezkatzuko dela dioen akordioa sinatu genuen 2019an. Arreta zuzenetik murriztutako ordu horietan hezitzaileek egin ditzaketen zereginak langileekin aztertuko ditugu.

Ordezlagunea - ordezkoen araudia:

Egungo ordezkapenen kudeaketak hezitzaileei eta haurreskoletako funtzionamenduari sortzen dizkieten arazoak arintzeko, Ordezlagunea martxan

jartzea aldarrikatu dugu, araudi berria egokitu eta hobetuko duen negoziatzeko prestutasunarekin batera. Ordezlaguneak ordezkoen nahi eta beharren arabera lanpostua aukeratzea erraztuko du, ondorioz, **lan-baldintzak hobetuz eta bizitzak sostengarriagoak eginez**. Era berean, haurreskoletako pertsonal hornikuntza erraztu eta azkartuko du eta **kudeaketako langileei lan-karga handia kendu ere**.

Lan-hitzarmen berriaren negoziazioa

> **Haur hezkuntzako bigarren zikloko langileen soldataren ekiparazioa:** HHko zikloen artean dagoen soldata-arrakalarekin amaitzeko.

> Kudeaketa-arloan: LABek sinatutako aurre-akordioan jaso arren gauzatu ez diren hobekuntzak aplikatzea. Besteak beste, **Eusko Jaurlaritzako langileekin mailak eta ordainsariak parekatzea, barne-sustapena** egiteko araudia, ordezkoen araudia eta ordezkapenen kasuistika. Telelana egiteko aukera negoziatu nahi dugu. Formazioa garatu.

> Hezitzaileen eta kudeaketako **langileen urteko lanaldia murriztu**.

> Hezitzaileen **arreta zuzeneko egutegia bateratu eta birdefinitu**. Egunean prestakuntzarako ordubete lortu behar dugu.

> **Hezitzaileen funtzioak eguneratzea** eta lan pedagogikoa bertan islatzea.

> **Koordinatzaileen funtzioak aztertu eta dedikazio-orduak eta plusa eguneratzea.**

> **Urte sabatikoa**: "Partzialki ordainduriko baimena" eskuratzea borrokatuko dugu.

> **Norberaren eginkizunerako baimena**: egun dau den baldintzetatik haratago, egun solteak hartzeko aukera izatea.

> **Formazioa eta gizarte-funtsa** jasotzeko proposamena.

> **Lanpostuen egokitzapena.**

> **Arriskuen ebaluazioa eta arrisku psikosozialen azterketa**, eta hauek ekiditeko neurriak negoziatu.

Formazioa: Haurreskoletako proiektuak + Prest gara, Irale.

Urteetan jasotako formazioari esker, haurreskoletan egiten dugun eguneroko lana aldatu da. 2003an lehenengo haurreskolek ateak ireki zituztenetik begirada erabat aldatu dugu hezitzaileok. Haurrak erdigunean dituen proiektuak sortu ditugu, beraien

erritmoetara egokitu eta eskaintza zabaldu diegu.

Egunerokoan hobetzen jarraitzeko, **langileon beharrak asebeteko formazio-plana eskatuko dugu**, orain arte egindako formazioaren indarguneak eta ahulguneak identifikatuko dituen diagnostiko bat eginez.

Honetaz gain, hezkuntza komunitatearen parte garen heinean, **Hezkuntza Sailak antolatutako gainerako formazioetan parte hartzeko aukera** eskatzen jarraituko dugu: Prest Gara, prestakuntza eta hezkuntza berrikuntzarako, eta IRALE, euskalduntzean sakondu eta berziklatzeko.

Hezitzaileen lanpostuen zerrenda:

Hurrengo urteetarako **lanpostu kopuruari eutsiko dion** langileon hornikuntza zehaztuko duen **LPza erreala** negoziatu nahi dugu. Haurreskola ezberdinen tipologiak eta beharrak kontuan hartuko dituen lanpostuen zerrenda. Gela bakoitzeko ratioen inguruan hitz egin beharrean, **hezitzaileen hornikuntzaz hitz egingo dugu.**

Egungo beharrak eta etorkizunekoak aztertuz, langileen plantillak esleitzeko irizpideak negoziatzeaz ari gara, alegia. Horretaz gain, doakotasunaren ondorioz sortu litezkeen behar berriei erantzuteko behar diren lanpostu berriak sortzeko eskatuko dugu.



Hezkuntza legeari LABen ekarpena

LAB sindikatuak aspaldi esan zuen hezkuntza sistema hau agortua dagoela eta, barne eztabaida sakon bat egin ondoren, aurkeztu genuen IRUTEN proposamena.

Azken hilabeteetan EAEko Hezkuntza Lege berriaren aurreproiektuaren eztabaida dago erdigunean. Hezkuntza Legean eragin nahi dugulako mobilizazioak eta grebak egin ditugu, "Publikoa, Euskalduna eta Propioa" helburu dugulako. Eraiki nahi dugun Euskal Eskola Publiko Komunitariorako, hau da, sare publiko bakar, burujabe eta deszentralizaturako, hezkuntza-legeak trantsizio tresna izan beharko lukeela uste du LABek.

Langileoi eragiten diguten neurri zehatzetan arreta jarritz, Haurreskolak Partzuergoko hezitzaile eta kudeaketako langileentzat, besteak beste, honakoa eskatzen du LABek:

- > Publikoa ardatz izateko haur hezkuntzako lehenengo zikloa barnebiltzea eta, horretarako, **Haurreskolak Partzuergo Publiko Hezkuntza Sailean** integratzea eta doakoa izatea.
- > Segregazioari aurre egin eta gizarte kohesioa bermatzeko, **matrikulazio guztia planifikatu eta kudeatzeko** eskuduntza izan behar dute **Udal Hezkuntza Kontseiluek, Haurreskolak Partzuergo Publikoaren matrikulazioa barne**; horretarako, beharrezkoa den eremuetan plaza eskainiz, zerbitzu unibertsala izatea bermatuz, eta, udalekin batera, haurreskola berrien sustapena bultzatuz.
- > **0-3 zikloa mantendu eta Haur Hezkuntzako etapa osoaren batasuna lortu**, bi zikloen arteko koordinazioa suztatuz.
- > 2 urteko gelak ez ituntzea eta haur eskola pribatuak diru-laguntzen bidez finantzatzen dituen txeki politika bertan behera uztea.
- > Azpiegiturei dagokienez, egun dauden **haurreskoletan hobetze lanak egitea, kanpo espazioetan arreta berezia** jarritz.
- > Euskara erdigunean jartzea. Batetik, **Haurreskolak Partzuergoko langileek Hezkuntza Sailak Eskola Publikoko langileei bideraturiko formazio-planetan** parte hartzeko eskubidea bermatuz, eta, bestetik, haurreskoletako zerbitzuetako udal langileei ere euskalduntzeko formazioa eskainiz.
- > **Langile guztion enplegua eta lan-baldintza egokiak** bermatzea.



Bizitzaren gares- titzearen aurrean

instituzioek neurri partzial eta ez-nahikoak besterik ez dituzte ezarzen. Soldaten eta pensioen kontrako eraso da.



Babesa



Sostengua



Elkartasuna



Bultzada



Indarra

Bestalde, **KPlaren arabera** **soldata-igoera** bermatzeak

lehentasunezkoa izan beharko luke. Administrazioak mahai orokorraren bitartez KPI azpiko igoerak ezarri dizkigu langile publikoei. LAB sindikatua-ren ustez, KPlaren arabera gutxieneko igoera da; horri uko egitea soldaten kontrako erasotzat jo beharra dago. Kontratazioari dagokionez, pasa den urteko lan-erreforma leuntzeko saiakera egiten ari da eta lizentzia eta baimenak negoziatzeko tarte txikia uzten digute.

Txanda-kontratuaren akordioa ez dugu sinatzen, soilik langile finkoei eragiten dielako. Pensioei dagokionez, hala Espainiako nola Frantziako Gobernuak murrizketa berriak aurreikusten dituztela salatzen du LAB sindikatuak. Pentsio-sistema publikoaren ahultzea ekarriko luketen erreforma aukerak zabalik daude Madril zein Parisen.

LABetik argi dugu sektore publikoak dituen gabeziei aurre egiteko **Euskal Herrian lege propioak** eta erabateko eskumenak gureganatu behar ditugula.

Blokeo horren aurrean **greba eta mobilizazioen aldeko apustua berresten dugu LABen**. Soldata eta lan-baldintza duinak dira ondasunaren banaketa orekatuago baterako hanka, zerga politika-rekin batera. Borroka sindikalaren bidez, kontrabotere sindikalismoa garatuz, enpleguaren, zaintza lanen eta ondasunaren banaketa (Banaketa Hirukoitza) agendaren erdigunean kokatzera doa LAB.

*Egiteko beste
modu bat*

LAB



irakaskuntza.lab.eus

**HAURRESKOLA
PUBLIKOETAN**
BAGARA
zurekin
Egitetako beste modu bat

haurreskolak.ara@lab.eus

Tlf: 689686207 - 637474015

haurreskolak.biz@lab.eus

Tlf: 666771196 - 666770982

haurreskolak.gip@lab.eus

Tlf: 674094543 - 666775484

FB: LAB HAURRESKOLAK

Twitter: @labhaurreskolak

LAB